

16. ARTIKULUA. IKASTETXEKO PERTSONA BAKARREKO GAINERAKO GOBERNU-ORGANOAK PROPOSATZEA, IZENDATZEA, KARGU-UZTEA ETA KARGUTIK KENTZEA

1.– Dekretu honetan aurreikusitako edozein kasutan ere, **ikastetxeko zuzendari** izendatu duten edo izendatuko duten pertsonak, klaustroari eta ordezkaritza organo gorenari entzun ondoren, **ikastetxeko gainerako pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko proposamena egingo dio** dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariari. Kargu horiek, hain zuzen ere, ikastetxe horretan destinoa duten irakasleak izango dira, eta haien artean, ahal dela, emakumeen eta gizonen ordezkaritza haztatua edo, halakorik ezean, orekatua izango da.

2.– Proposamen horrek, hala badagokio, bat etorri beharko du prozeduraren hasieran aurkeztutako zuzendaritza-proiektuan agertzen den pertsonarekin, aparteko zirkunstantzietan izan ezik. Inguruabar horiek dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariak baloratu eta, hala badagokio, ontzat emango ditu.

3.– Dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatuko ditu ikastetxeko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoak betetzeko proposatutako pertsonak, proposatzen dituen zuzendariaren agintaldiaren aldi bererako.

4.– Ikastetxeko **pertsona bakarreko gobernu-organoek** –zuzendari ez direnek– **kasu hauetan utziko dute kargua:**

- a) Agintaldia amaitzea.
- b) Ikastetxeko zuzendaria kargutik kentzea.
- c) Lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariak bere kargua errebokatzea, ikastetxeko zuzendariak proposatuta.
- d) Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariak onartutako uko arrazoitua, ikastetxeko zuzendariari entzun ondoren.
- e) Gerora sortutako ezintasun fisiko edo psikikoa.
- f) Dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariak, bere ekimenez edo ikastetxeko ordezkaritza organo gorenak proposatuta, karguari dagozkion eginkizunak larriki ez betetzeagatik errebokatzea. Nolanahi ere, errebokatzeke ebazpena kontraesaneko espediente bat bideratu ondoren emango da, interesdunari, ikastetxeko zuzendariari eta ordezkaritza organo gorenari entzun ondoren.

5.– Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak beharrezkotzat jotzen dituen salbuespenezko egoeretan, **zuzendariak zuzendaritza-taldeko kideak zerbitzu-eginkizunetan izendatzeko proposamen arrazoitua egin ahal izango du**. Irakasleen kudeaketa arloan eskumena duen zuzendaritzak ikastetxe horretan zerbitzu-eginkizuna emateko ebazpena onartu ahal izango du agintaldiak irauten duen bitartean, hezkuntzako ikuskaritzak eta irakasleen kudeaketa arloan eskumena duen zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren.